



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2010-04-13

VIII. URTEA 1.973. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

ABSOLUZIOA BOSTENTZAT

'EGUNKARIA AUZIA' Auzipetuen aurkako frogarik ez dagoela ebatzi du, besteren artean, epaia

HELEGITEA Auziak jarraipena izan dezake AVTk eta Dignidad y Justiciak helegitea sartu ahal dutelako > 3



Fidel Azpiroz eta Imanol Sarasola garaile

BERASTEGI Zegamako XII. Ezti Lehiaketako milalore erako saria eskuratu dute > 4

Lan txukuna Euskadiko II. Ligan

VILLABONA Promesen mailan hirugarren eta kadeteetan lehenengo egin zuten > 7

Pasaban oinarrizko kanpalekuan

TOLOSA Haizeteak iragarri dituzte; prest utzi dute hirugarren kanpamendua > 6

Jende asko gerturatu zen atzo arratsaldean Andoaingo Martin Ugalde parkera bost auzipetuak zoriontzeko. GARI BERASALUZE-HITZA.INFO

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leizua

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

'Euskadunon Egunkaria' absolbitua

'Egunkaria auzia' »

Auzipetuen aurkako frogarik ez dagoela, kazetaren itxiera Konstituzioaren aurkakoa dela, eta inkomunikazioan ez zela kontrol nahikorik izan dio epaiak.

ERREDAKZIOA

Espainiako Auzitegi Nazionalak absolbitu egin ditu Martxelo Otamendi, Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uria, Txema Auzmendi eta Xabier Oleaga *Egunkaria*-ko itxiera kasuko bost auzipetuak, euren kontrako frogarik ez dagoela ebartzita. Absolbitu egin du, beraz, *Euskaldunon Egunkaria*.

Atzo eguerdian eman zuten epaiaren berri. Bertan dioenaren arabera, bost auzipetuek ez zuten deliturik egin eta ez zuten harremanik izan ETArekin. *Egunkaria* itxeko erabakia Espainiako Konstituzioaren aurkakoa dela esaten du epaiak eta, adierazpen askatasun eskubidea dela-eta, kazeta itxi aurretik beste aukera batzuk baude. Epaiaren arabera, salbuespen egoerarik egon ezean Konstituzioak ez du ahalbidetzen hedabideak itxia, «delikuentzia

terrorista» kasuetan ezin da halako neurririk hartu.

Hedabideak ez dira, epaileen ustez, «beste edozein enpresa», «gizarte demokratikoan oinarrituak eta ezinbestekoak diren eskubideak gauzatzeko tresna direlako». Itxierarekin adierazpen askatasunaren eskubidea urratu zela dio Auzitegi Nazionalako epaiak. Gainera, «pluralismoaren perspektibatik», *Egunkaria* euskaraz argitaratu izana ere kontuan hartu behar dela esaten du.

Tortura salaketez epaimahaik inolako ondorio juridikorik ezin duela atera dio, baina, hala ere, zailtzan jarri dute inkomunikaturik egon ziren bost egunetan auzipetuei egin zitzaizkien kontrola edo jaso zuten tratua.

Auziaren jarraipena

Dignidad y Justicia eta AVT herri akusazioek kartzela zigor eskarriak egin zituzten bost auzipetuen aurka, ETArekin harremana izan zutelakoan, baina Javier Gomez Bermudez, Ramon Saez Valcarcel eta Manuela Fernandezek osatutako epaimahaia ez du bost auzipetuen aurkako ezer ikusi.

Torrealdai Egunkaria SAko Administrazio Kontseiluko lehendakaria izan zen, Uria Administrazio Kontseiluko kontseilari ordezkaria eta kazetako zuzendaria, Auzmendi Administrazio Kontseiluko

idazkaria, Otamendi *Egunkaria*-ko zuzendaria eta Oleaga zuzendariordea.

Bost auzipetuak «oso pozik», azaldu dira epaiarekin, baina jakitun dira auziak jarraipena izan dezakeela, Dignidad y Justicia eta AVTk Espainiako Auzitegi Gorenera jotzeko aukera baitute, helegitea sartuta. Beraz hurrengo pausoa bertan ere absolutioa lortzea litzateke, eta behin hori lortuta, kalte ordainak eskatzera pasako lirateke. Bestetik, auzi ekonomikoak zabalik segitzen du eta epailetaren zain daude zortzi auzipetu, tartean, Tolosan bizi den Begonia Zubelzu.

Erantzukizunak eskatu dituzte

Epaiak jakin bezain laster iritsi ziren alderdien erreakzioak. Gehienek ere antzerako adierazpenak egin ez, Espainiako Estatuari kalte ordainak ordaintzea dagokiola esan zuten. Hala, EAJrentzat «onartezina» da «estatu demokratiko baten sistema judicialak horrelako ondorioak eragitea, eta praktikan erabakitzea, instrukzioa baino lehen. Espainiako Estatuak kalteak ordaindu behar dizkie *Egunkaria*-ko akusatuei eta langile ohiei, ondorio personal, sozial, eta ekonomikoengatik».

PSEk, bestaldea, begi onez ikusi du sententzia, izan ere, «konstituzioaren arabera egunkari bat itxe-



Martxelo Otamendi, atzo, agerkarietan berria jarritzen. GARI BERASALUZE-HITZA.INFO

ko nahiko arrazoirik ez zegoen, beraz, ez luke inoiz gertatu behar».

Aralarrek epaiak jakin ostean justizia eskatzeko unea dela adierazi zuten, eta Estatuak kalte ordainak ordaindu behar dituela. Ezker Batuak, berriz, horrez gain, barkamena eskatzea dagokiola esan zuten.

Alternatiba Eusko Jauriaritzari zuzendu zaio, «berari baitagokio *Egunkaria*-ren itxierarengatik Espainiako Estatuari kalte ordainak eskatzea». EArentzat «berandu» heldu da epaia, eta «ez du egindako kaltea konpontzen». «Ardurak» eskatuko ditu «euskaraz argitaratzen zuten egunkari bakarra ixteagatik, eta absolbitu dituzten bost pertsonen eragindako kalteengatik, larriena, tortura salaketak».

PPk, bere aldetik, «Fiskaltzaren jarduerak okerra» nabarmendu du, baina «erabateko errespetua» azaldu du Espainiako Auzitegi nazionalak hartu duen erabakiaren aurrean. «Zuzenbide Estatuaren gaudela erakusten baitu».

2003an itxi zuten 'Egunkaria'

Guardia Zibilak itxi zuen *Egunkaria*, 2003ko otsailaren 20an, Del Olmo Auzitegi Nazionalako epailearen aginduz, kazetak ETArekin harremana zeukala egotzita. Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uria, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi, Pello Zubiria, Xabier Oleaga, Xabier Alegria, Fermin Lazkano, Luis Goia (hau 2006an hil zen) eta Inma Gomila atxilotu zituzten.

«Pozik, baina kezkatuta jarraitzen dugu»

MARTXELO OTAMENDI | 'Euskaldunon Egunkaria' -ko zuzendari ohia

Tolosa » Pozik azaldu dira auzipetuak epaia jakin ostean, eta babesa eman dietenekin zorretan daudela azaldu dute.

INIGO TERRADILLOS

Duela zazpi urte itxi zuten *Euskaldunon Egunkaria*, eta bost auzipetuen aurkako epaiketa iazko abenduaren 15ean hasi zen otsailaren 1ean bukatzeko. Defentsak eta fiskalak absolutioa eskatu zuten, auzipetuek deliturik ez zutelako argudiatuta. Dignidad y Justicia eta AVT herri akusazioek, aldiz, 12 eta 14 urte arteko kartzela zigorrak eskatu zituzten auzipetuentzat, ETArekin lotura eduki zutelakoan. Atzo jakitera eman zuten epaiaren arabera, baina, auzipetuek ez zuten deliturik egin, eta ez zuten harremanik izan ETArekin. Martxelo Otamendik (Tolosa, 1957) «gustura» daudela eta babesa eman dieten jende guztiarekin zorretan daudela adierazi du.

Zer sentitzen duzue epaiaren aurrean?



IT.

Zazpi urte hauetan gure borondatearen aurka ezarri ziguten pisu handia kendu dugu gainetik. Beraz, pozik gaude, urte hauetan aldarrikatu duguna ontzat eman duelako epaiak. Eta pozik, gurekin batera jende ugari poztu delako, jende ugari eman baitu pisu hori gurekin. Jende hori guztia eskertu beharrean gaude emandako babesarengatik. Halaber, kezkatuta gaude, herri akusazioak helegitea

jar dezakeelako Auzitegi Gorenean. Eta, horrez gain, ezin dugu ahaztu auzi ekonomiko ere hor dagoela, beste zortzi auzipetuekin. **Zer suposatzen du absolutio epai honek?**

Epaimahaiko kideek *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxiera Konstituzionala den ala ez zalantzak dituzte, eta baita gure tortura salaketen inguruan. Ez da oso ohikoa Auzitegi Nazionalak euskal auzietan ho-

rrelako epaiak ematea, eta hori guretzat oso garrantzitsua da.

Auzi ekonomikoan eragina izango al du epaiak?

Auzi ekonomikoan ere arriskua handia da, eta bertan kartzela eskaerak handiagoak dira. Auziak pisu hartzen du ETako kide izatea egozteagatik, eta delitu ekonomikoak ETArekin lotzen dutelako. Orain, ordea, absolutioak dio ETakoak ez gairela, beraz, auzi ekonomikoak ETaren pisu hori galduko luke. Beraz, Donostian edota Tolosan izango litzateke epaiketa, eta gure espero duguna da Auzitegi Nazionalatik ez ateratzea eta bertan behera uztea.

Kalte ordainak eskatuko al dituzte?

Absolutioa etorri da orain. Gero ikusi beharko dugu Dignidad y Justicia eta AVT herri akusazioek helegitea jartzen duten Auzitegi Gorenean. Hura bukatzen denean, eta absolutioa behin betirako denean, orduan izango da kalte ekonomikoek hitz egiteko garaia. Oraingoan, beraz, absolutioaz hitz egiteko unea da.

Ekitaldi bat antolatzeko asmoa

duzue babesa eman dizuenei eskertze aldera.

Bai. Hainbat ekitaldi izango dira, eta handiena Euskalduna jauregian egingo dugun jaialdia. Izan ere, oso eskertuta gaude Euskal Herriko nahiz kanpoko jendearekin, gugan sinetsi dutenekin, babesa eta elkartasuna adierazi dutenekin. Tolosaldeko herritarrak nabarmendu behar ditut, bertako jendea asko mugitu baita *Egunkaria*-ren alde; bertako komunikabideak, erakundeak, alderdi politikoak, sindikatuak, euskalgintzako jendea, *Egunkaria*-ko Tolosaldeko lankideak, Egunkariaren babes taldea... Kalean etengabe nabaritu dugu jendea gurekin dagoela, karga hori eramaten lagundu digute, eta zorretan gaude betirako jaso dugun laguntzarengatik.

Normaltasunari ekin ahalko dizue orain?

Arlo batzuetan bai, baina ez erabat, izan ere, oraindik Auzitegi Nazionalaren kontua legoke, eta horrek ere berrituz lutzatuko luke dena. Baina nabaritu dugu, izan ere, kendu dugun pisuaz gain, esaterako, gure ondasunak blokeatuta edukituzte orain arte, eta datoen asteetan erabakiko du Auzitegiak bahikuntza horiek altxatzea. Halaber, aukera emango digute nahi dugun lurraldera irretetako inolako baimenik eskatugabe, zazpi urte hauetan ez bezala.

Amesgaizto luzea irudietan

ERREDAKZIOA

Euskaldunon *Egunkaria* euskarazko kazeta itxi zuten 2003ko otsailaren 20an. Hamar lagun atxilotu zituen Guardia Zibilak, Juan del Olmo Espainiako Auzitegi Nazionalako epailearen aginduz. Joan Mari Torrealda, Iñaki Uribe, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi, Pello Zubiria, Xabier Oleaga, Xabier Alegria, Fermin Lazkano, Luis Goia (2006an hil zen) eta Inma Gomila izan ziren, hain justu, atxilotutakoak.

Denbora asko, gehiegi, igaro da ordutik eta hamaika dira prozesu luze honek utzi dituen irudiak. Eskualdean ere auzipetuen aldeko eta auziaren beraren aurkako ekimen ugari egin dira. Hemen horietako garrantzitsuenak bildu nahi izan ditugu, gehienak ere eskualdean bertan jazotakoak.



1. Martxelo Otamendi, sende eta lagunekin, kartzelatik atera berriren, 2003ko otsailaren 25ean. Torturak salatu zituen tolosarrak. Auzipetu guztien tortura salaketa guztiak artxibatu egin zituzten Iñaki Uriarena izan ezik. Otamendiren salaketaren helegitea Espainiako Auzitegi Konstituzionalean dago egun. 2. 2004ko abenduaren 14an, deklaritzen. 3. Egunkariaren Aldeko manifestazio erraldoia. 4tik 10era. Elkarretaratzeak Alegian, Villabonan, Tolosan, Ibarra, Anoetan, Altzun eta Berastegin. 11. Martxelo Otamendi, HITZAn eginiko elkarrizketan. 12. Eskualdeko hainbat eragile eta pertsonaia ezagun, epaiketaren aurkako salaketa egiten. 13. Martxelo Otamendi eta beste lau auzipetuen kontrako epaiketa Madril. 14. Egunkaria Eguna, pasa den otsailaren 20an, Tolosan.

berria.info

Euskaldunon sarea



'Egunkaria'-ko auziaren epaiari buruzko zuzeneko telebista saioa BERRIA.INFOn: auzipetuen agerraldia, elkarrizketak, auziaren bideo erreportajea...

Gaur, 11:15etik aurrera



Urepele aztoratu du Irrintzi clownak

BERASTEGI ■ Irrintzi clown pinpiri-ñak Urepele elkarteaz aztoratu zuen herenegun iluntzean. Josune Goenaga goierritarrak sudur gorria jantzi, eta Irrintzi izenez aurkeztu zuen bere burua. Elkartean, emanaldia ikustera hurbildu ziren gazteek, barre ugari egin zituzten neska xeble honek kontatutako istorioekin. Hasieratik gainera, bertan zegoen mutiletak bati bota zion begia, eta harekin ezkondu eman zion amaiera saioari. Martxoan ospatutako Gazte Festen ostean, larunbatekoa izan zen Berastegiko elkarteak antolatutako azken kultur ekimena. E. EZEIZA

Laburrak

Landa Goikoa eremuko bizitzetan izen-ematea

LEITZA ■ Gaur irekitzen da Landa Goikoa eremuan eraikiko diren zortzi etxebizitzetan izena emateko epea. Hauek Babes Ofizialeko izango dira, eta bizitzako 55,5 metro karratu edo 72,49 izango dituzte. Interesatuak udaletxera jo beharko dute izena emateko. Erosketan parte hartzeko, azken urteetan, gutxienez, Leitza errol-datuta egon beharko dute interesatuak. Guztira, Landa Goikoan 40 etxebizitza eraikiko dira, denak ere babesekoak izango dira. Lehen 24ak babes ofizialekoak eta azken 16ak tasatuak.

Zerga batzuen kobraketa kanpaina amaitzean da

IBARRA ■ Bihar amaituko dira 2010. urteari dagokion Kiroldegiko abonuari dagokien udal-tasaren eta trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko udal-zerbaren ordainagiriak kobratzeko epea. Udalak jakitera eman duenez, epea igaro ondoren, bide exekutiboz egingo dira kobraketak. Ordainagiri horiek edozein kutxa edo bankutan ordaindu ahal dira.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarralde. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 675390 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Fidel Azpiroz eta Imanol Sarasola garaile Zegaman, ezti lehiaketan

Berastegi ■ Gipuzkoako XII. Ezti Lehiaketa izan zen herenegun; ezti ilunen atalean eskualdeko osaba-ilobek irabazi zuten.

ESTITXU MAIZ (GOERRIKO HITZA)

Igandean ospatu zuten Erlezain Eguna Zegaman. Erlerikgabe ezlitzateke erlezainik egongo ordea, eta horren jakitun, eguerdi partean gorazarre egin zioten ezti egiten duen intsektuari. Aurraskua dantzatu zuten bere omenez eta bertsoa ere abestu zioten. Erleari omenaldia egiteaz gain, Gipuzkoako XII. Ezti Lehiaketa ere burutu zuten Zegamako pilotalekuan. Iaz bezala aurten ere ezti argi, ezti ilun eta milalore erako ezti lehiaketa izan zen eta bailarako txapelketetan saritutakoak aurkeztu ahal izan ziren bakarrik. Guztira 21 ezti dastatu behar izan zituzten epaimahaiko kideek; Lierni Aranburu teknikoak, Amaia Zubiria abeslariak eta Jon Barriola erlezainak. Eguerdiko ordu bata eta erdiak aldera eman zituzten jakitera irabazleen izenak. Ezti argietan saria



Herenegun, Rodriguez, Sarasola eta Azpeitia irabazleak, euren sariak eskuetan hartuta. MIKEL BERASTEGI

Jose Luis Azpeitia (Arrasate) etxeratu zuen, ezti ilunetan Javier Rodriguezek (Donostia) eta milalore erako eztiaren berriz, Fidel Azpiroz eta Imanol Sarasola osaba-ilobek (Berastegi).

Urteko erlezainak ere omendu zituzten: Elduaingo Simon Nazabal, Inazio Mugika, Mariano Elor-

za eta Inazio Arsuaga, hain zuzen. Arsuagak 81 urte ditu eta gainerako hirurek 80na. Oraindik urteroko ezti egiten jarraitzen dute. Eurak eta eurek egiten duten lana kontutan hartu izana gustatu zitzaizkien lau omenduei eta pozik igo ziren ohol-tza gainera txapelak eta bastoiak hartzera.

Ekitaldi horiek guztiak festa giroan burutu ziren. Ez ziren falta izan artisauen postuak eta jendeak hainbat erakusketez gozatzeko aukera ere izan zuen.

Goizetik Euskal Herriko gozogileen produktuak zeuden ikusgai: Adarraga (Hernani), Gorrotxategi (Tolosa), Ezeiza (Tolosa), Unanue (Ordizia), Zegamako Okindegia (Zegama), Egaña (Azpeitia), Pastas Asurmendi (Eibar), Raizabal (Bergara), Oiartzun (Donostia), Arruti (Andoain) eta Hawai (Irun-Hondarribia) gozotegietakoak, hain zuzen. Bazkari herrikoaren aurretik bertaraturako gozozaleen artean banatu zituzten postre denak.

Jende ugari bertsoak entzuten
Arratsaldean jende ugari bildu zuen, Lujanbiok, Arzallusek, Egaña, Mendiluzek, Zubeldiak, Kolinak, Sarriegik eta Iturriagak egindako bertso saioak.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Altzariak.** Egongelako altzariak: armairua, mahai biribila la aulkirekin eta bost piezako bi sofa. Oso egoera onean daude. Interesatuak deitu 610 68 60 68 telefono zenbakira.

■ **Motorra.** KTM 125 sx markako krosseko motorra salgai. 1998koa, ondo zaindua. Deitu 651 70 90 23 telefono zenbakira.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Zuri-beltzetik kolorera

Alegia » Arkatz-ziriz eta boligrafo-gelez egindako margolanak zintzilikatu ditu Luis Mari Nuñez anoetarrak Jubilatuen tabernan.

IMANOL GARCIA

Luis Mari Nuñez anoetarraren margolanak ikusi daitezke Alegia-ko Jubilatuen tabernan hil honean. Bi koadro ikatz-ziriz egindakoak dira, zuri-beltzean, eta beste guztiak boligrafo-gelez egindakoak, koloretan. «Erakusketa bat egin nuen ikatz-ziriz eta ikasle batzuk esan zidaten asko gustatu zitzaizela, baina kolorea falta zela», dio Nuñezek. Eta, hitz horiek en-

tzun ondoren, koadroei kolorea ematea pentsatzen hasi zen.

Zuri-beltzean egindako margolanak figuratiboak baziren, koloredunak abstraktu-figuratiboak dira eta hainbat elementu sartu ditu: zuhaitzak, pertsonak, animaliak, letrak... Lehenengo arkatez egiten ditu marrazkiak eta gero gainetik margotzen ditu boligrafo-gela erabiliz. Ondoren lakarekin hiru esku ematen dizkio. Koadroei da-

gokionez, «ez dakizu jendeak nola hartuko dituen», dio Nuñezek. «Kolorea izanez, deigarriagoak dira».

Tabernan jarri duen erakusketako koadroak salgai daude, baina ez dute prezio jakinik. «Norbait interesatuta badago, berarekin hitz egingo nuke eta prezioaren inguruan adostasun batera iritsiko ginateke», azaltzen du margolari anoetarrak.

Erakusketa Tolosako Fronton kafetegian izan zen ikusgai aurretik eta Jubilatuen tabernan sartu ez diren zenbait koadro Hernialdeko Elketa jatetxean ikusi daitezke.



Kirol emaitzak

PILOTA	
Oiartzungo Euskal Herriko Nesken Pala Txapelketa	
Iera Agirre - Maider Otegi Redondo - Errasti	25 11
Gravn Txapelketa	
JUBENILAK	
Jon Jaunarena - Etxamendi Legorburu - Galarza	22 11
Irurtzungo Txapelketa	
BENJAMINAK	
Hernandorena-Goikoetxea	13 18
ALEBINAK	
Salaberria-Lezea	18 14
INFANTILAK	
Gartziaarena-Galartza	18 2
Iruritako Emakumeen Paleta Goma Txapelketa	
Iera Agirre-Saioa Aristorena - Guru-Begoña	30 13
Lizarrako Txapelketa	
INFANTILAK	
Sagastibeltza-Sagastibeltza - Lander-Izarra	18 9
Herreraako Txapelketa	
KADETEAK	
Olano-Tolosa - Sarasti-Imaz	22 18
ARETO FUTBOLA	
Nazional A Maila	
C.D. Atenea Ikusnet - Lauburu	2-1
SAILKAPENA	
1. Zierbana (60p.); 2. C.D. Zalator Area 99 (56p.); 3. Lauburu KE (52p.)	
Nazional B Maila	
Euskalduna - Laskorain Ikastola	0-3
AIZKORA	
Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketa	
SAILKATUAK	
Ruben Saralegi - Jose Ugarteburu - Felix Etxeberria - Jose Erdozia - Arkaitz Olano - Aritz Irzabal	
ARRAUNA	
Gipuzkoako Batel Txapelketa	
INFANTIL-KADETE NESKAK	
1. Hibaika	04:58,55"
2. Orio	+3,40"
3. San Pedro	+9,18"
4. Tolosaldea	+10,62"
INFANTIL MUTILAK	
1. San Juan	04:46,74"
2. Orio	+6,50"
3. San Pedro	+7,32"
7. Tolosaldea	05:08,10"
JUBENIL MUTILAK	
1. Tolosaldea	08:59,87"
2. Orio	+0,50"
3. San Pedro	+17,89"
SENIOR NESKAK	
1. Getaria	09:54,96"
2. Zumaiako	+7,51"
3. San Juan	+10,16"
5. Tolosaldea	

«Gehiago merezi arren» porrotarekin itzuli da Lauburu

Ibarra » Gasteizen jokatu zuten 25. jardunaldiko partida ibartarrek. Atenearen aurka 2-1 galdu zuten.

ERREDAKZIOA

Lauburu KEren komunikabide arduraduna ez dago gustura larunbatean lortutako emaitzarekin. Jose Manuel Tobiasentzat 2-1ekoak ez zuten partidaren gertatua islatu, «ibartarrek gehiago merezi baitzuten».

Ezinean

Lauburuk Gasteizen jokatu zuen Ligako 25. jardunaldia larunbatean, Atenea Ikusnet taldearen aurka. Hasieratik Joseba Balerdi, Ifni-

go Arrospide, Aitzol Oiarbide, Cristian Davila eta Jon Garmendia irten ziren kantxara. Ondoren, partidaren zehar, Victor Silva, Loitzun Sanz eta Ander Esnaolaren, Txipiren, laguntza izan zuten.

Tobiasen esanetan «partida oso arraroa» izan zen: «Ez zen ezer ongi aterata, aukera guztiak huts egiten dituzun lehia horietakoa izan zen. 40 minututan jokoa ongi dominatu genuen baina zortea aurka izan genuen».

Gol guztiak lehen zatian lortu zituzten bi taldeek, bata bestearen atzetik gainera. Lehen gola penaltiz lortu zuten etxeok, «arbitroek aurreko jokaldian ikusi ez zutena, gure arean seinatu zuten» dio Tobiasek. 12. minutuan, beraz, ibartarrak 1-0 hasi ziren galtzen. Bi minutu beranduago Ion Garmen-

diak baloi bat lapurtu zuen, Victor Silviri pasa eta honi sareetara bultzatzea besterik ez zitzaion gelditu. Markagailuan 1-leko emaitza. Hurrengo jokaldian ordea, Atenea 2-1ekoak lortu zuten.

Tobiasen esanetan «Ateneako atezainaren aurrean arrisku gehiago sortu genuen arren 2-lekoarekin iritsi ginen atsedendira. Horren ondorioz, bigarren zatian, dena jaketara irten ginen». Baina aukera garbiak izan arren, Davilak huts egindako penaltia horien artean, markagailua ez zen mugitu.

Jubenilak bikain

Bestalde, Lauburuko jubenilek 13-0 irabazi zuten asteburuan, San Pedrorren aurkako partida. Lider jarraitzen du talde ibartarrak.

Pasaban berriro ere oinarrizko kanpalekuan, haizete handiagatik

Tolosa » Hirugarren kanpamendua prest utzi dute; «hortik gora bidea zabalagoa eta errazagoa» dela dio mendizaleak.

ERREDAKZIOA

Annapurna menditik albiste txarrik iritsi ziren igandean Euskal Herrira: «Eduerne Pasaban berriro ere oinarrizko kanpalekuan aurkitzen da». Tolosarrak honela azal-

tzen zuen: «Ez da ezer larria, baina ezta itxaroten genuena ere. Oinarrizko kanpalekura itzuli behar izan dugu, tontorra zapaltzeko aukeratu genuen egunean, 70 kilometro orduko haize boladak aurrekusten baitiragainean. Ezinezkoa».

Albiste onak ere badira

Eduerne Pasaban katarroarekin aurkitzen da eta atsedean egun hauek ongi etorriko zaizkio. Taldekideak oso ongi aurkitzen direla

ere esan du tolosarrak. Azken saiatzeraren inguruan, dena ez da txarra izan, hirugarren kanpamendua prest uztea lortu baitute. «Hortik gora bidea zabalagoa eta errazagoa da».

Eguraldiari dagokionez, ondorengo egunetan elurra espero dute, baina haizeak behera egingo duela diote eguraldi iragarpenek. «Ikusiko dugu, hiru egun hemen behean ongi etorriko zaizkit, nahiz eta egun guztia zakuan pasatu» aitortu du Pasabanek.

Ruben Saralegi eta Arkaitz Olano leitzarrek aurrera egin dute

Aizkora » Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketan Mujika, Pellejero eta Saralegi gaztea at gelditu dira.

ERREDAKZIOA

Gazteak indartsu dabilta aizkora munduan. Asteburuan Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketaren hiru kanporaketa jokatu dira eta izen handiko aizkolaria ugari lehiatik at gelditu da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko bost aizkolarik hartu zuten parte hiru probetan. Horietatik bik aurrera egitae lortu dute: Ruben Saralegi eta Arkaitz Olano leitzarrek. Bidean berri hiru gelditu



Ruben Saralegi eta Arkaitz Olanok aurrera egin dute. HITZA



dira: Jexuxmari Mujika ibartarra, Asier Pellejero aresoarra eta Eneko Saralegi leitzar gaztea.

Hurrengo kanporaketa igande-

an, hilaren 18an, jokatuko da Leikunberrin. Aizkora jaialdia 12:15ean hasiko da eta hemen ere 9 aizkolaria ariko dira.

Laskorainek 0-3 irabazi dio Euskaldunari eta lidertza bi puntutara dauka

ERREDAKZIOA

Duela ia bi hilabete ziklojenesiagatik atzeratutako jardunaldia jokatu zuen Laskorainek joan den larunbatean, Andoingo Allurralden. Azken hiru neurketetan garaipenik eskuratu gabe, horitxozentzat oso neurketa garrantzitsua zen Euskaldunaren aurkakoa.

Azken emaitza honek besterik adierazi dezakeen arren, norgehiagoka ez zen batera erraza suertatu Ikastolakoentzat. Lehen zatian etxeok baino dezente hobeto aritu ziren, gol jokaldi eta gol aukera franko sortuaz, baina ate aurrean ez ziren oso fin ibili eta Otxoak egindako gol bakarrekin aldagaratu behar izan zuten atsedendira. Bizirik zirauen arearioak eta oraindik ez zegoen ezer erabakita.

Bigarren zatian gainera 0 eta 1-eko abantaila murrizt bezain arriskuak denbora luzean iraugo zuten, luzeegian bi taldeen jokoa aztertuta eta minutuak aurrera joan ahala urduritasuna nagusituz joango zen lerro horitxoetan. Lasaistasuna Urko atezainaren gelditu apartek bakarrik ekarri zuten, eta batez ere, amaierarako bi minuturen faltan Barriola kapitainaren golak. 0 eta 2, orain bai, orain puntuak Usabalaldera zetozen eta andoaindarren atezain jokalaria probestuz Murgik hirugarrena egiteko ere astia izango zuen.

Goraipatu nola ez Urko atezainaren partida, taldeko onena izan baitzen dudarik gabe eta bikain aritu baitzen taldeak gehien behar zuenean. Urkok denboraldi itzela burutzen ari den Endika atezain titularren azken orduko baja ezin hobeto estali zuen, Laskorainek bi atezain lehiakor dituela frogatuaz.

Albiste txarra aldiz Mikel Alonsoaren lesioa izan zen, belaunean min hartuta erretiratu behar izan baitzuen tolosarrak. Aurretik ere lesio luze batetik igarotakoa da Alonso eta espero dezagun oraingoan behintzat Laskorainen aurrean debutatzen ari den zierre teknikoak ezer serioirik ez izatea.

Garaipen honekin eta liga amaierarako sei jardunaldiren faltan, Laskorain Allerru liderrarengandik bi puntutara kokatu da sailkapenean eta indar guztiak agortu behar dira azken txanpako ahaleginean. Maila honetan Laskorainek jokatu dituen aurreko bedertzi denboraldietan aritutakoek edozer gauza emango zuketuen horrelako aukera bategatik.

Gustura amaitu zuten Allurralden Javi delegatuak, Jorge, Javi eta Imanol prestatzaileek eta Urko, Beñat, Gil, Murgik, Lander -haserako bostekoa-, Barriola, Alonso, Txiki, Elola, Otxoa eta Endika jokalariek.

Laburrak

GPS ikastaroan izena emateko aukera zabalik

IRURA ● Kirol Astearen baitan, GPS ikastaroa antolatu dute hilaren 20, 21 eta 22rako, 19:00etatik 21:00etara Gaztelekuan. Era berean, hilaren 25ean, 09:00etatik 13:00etara, GPSarekin Irurako mendietan ibiliko dira. Ikastaroa doan izango da eta izena 665-70 70 71 telefonora deituz eman behar da hilak 19a baino lehen.

Zizurkil-Villabonako tren geltokiak kalteak jasan ditu

ZIZURKIL-VILLABONA ● Adifen trenbide sareak leku ezberdinetan kalteak jasan ditu eta horien artean Zizurkil-Villabonako tren geltokia izan da erasotako bat. Txartelak ateratzeko makinak izan dira kalteak jasan dituztenak eta bestalde, Abiadura Handiko Trenaren aurkako pintaketak egin dituzte.

Aurtengo Santiago festak antolatzeko bilera gaur

VILLABONA ● 2010. urteko *Santiago jaiak* prestatzeko jai batzordeak bilera arako deia luzatu dute. Jaiak prestatzeko lanetan billabonatar guztiek parte har dezakete eta horretarako aukera gaur 19:00etatik aurrera udaletxean izango da.

Hitzaldia Amaieur eta guda zibileko arkeologiari buruz

TOLOSA ● Gaur 16:00etan hasiko da Tolosako HHIn, Juan Agirre Mauleonek emango duen *Amaieur eta guda zibileko arkeologia. Zientzia memoriaren zerbitzura* hitzaldia.

Apirila eta maiatzeko Zineko bonuen salmenta

TOLOSA ● Apirila eta maiatzeko bonuen salmenta hilaren 15ean egingo da 17:00etatik 19:00etara eta baita zine saioen aurretik, Leidoerreko leihatilan. 10 eurotan 10 film ikusteko aukera eskaintzen dute.



Nafarroa, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako pultsulari ordezkariek Txapelketa bukatu oostean. E.MAIZ

Kadeteetan lehenengo eta promesen mailan hirugarren

Halterofilia » Euskadiko II. Liga jokatu zen kadete eta promesen mailan. Danena-Olaederrako pultsulariek lan «ona» egin zuten.

ERREDAKZIOA

Larunbatean, Villabonako Olaederra Kiroldegian Euskadiko II. Liga jokatu zen kadete eta Promesen mailetan. Bertan Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Nafarroako 33 pultsulari lehiatu ziren.

Eguraldi ederra lagun, kiroldegi kanpoko frontoian egin zuten Txapelketa eta lurralde bakoitzeko lau pultsulari izan ziren. Eskualdekoen artean ziren, Asier Gallego, Joseba Arrate, Kellyyam Quintana eta Ionut Dandu kadeteak eta Adrian Sasiain, Iñaki Zubelzu eta Unai Calbo promesak.

Kadeteen mailan, Gipuzkoako lau pultsulariak Zizurkil-Villabonako Danena-Olaederra taldekoak ziren eta promesen kasuan laugarren pultsularia Aitor Martinez zarauztarra izan zen.

Kadeteetan, Danena nagusi

Asier Gallego, Joseba Arrate, Kellyyam Quintana eta Ionut Dandu Danenako pultsulariek ordezkatu zuten Gipuzkoa eta hauek eskuratu zuten taldekako garaipena eta honenbestez, Gipuzkoak sailkapenean lehenengo postua eskuratu zuen. Egindako lanaren arabera, sailkapen orokorrean, parte hartzaile guztien arteko sailkapenean ere lehen lau postuak eskuratu zituzten, hurrenez hurren.

Bigarren postuan Nafarroa sailkatu zen, hirugarren Araba eta laugarren postua bizkaitarrentzat izan zen.

Promesetan, hirugarren

Promesen mailan, lehen postua Nafarroak eskuratu zuen, bigarren sailkatua Araba, Gipuzkoa hirugarren eta laugarren postuan berriz, Bizkaia sailkatu zen. Gipuzkoa ordezkatzeko Danenako hiru pultsulari, Adrian Sasiain, Iñaki Zubelzu eta Unai Calbo eta zarauztarra den Aitor Martinez aritu ziren. Beraien sailkapenean berriz, bosgarren, seigarren, hamahirugarren eta hamabigarren izan ziren.

Batis Kortajarena entrenatzailea «gustura» agertu zen bere mutilek egindako lanarekin. «Kadeteetan jende asko daukagu eta oso maila altua dute. Promesetan aldiz, oraindik oso gazteak dira». Hurrengo txapelketa, maiatzaren leian, Gijonen jokatu den Espainiako Junior Txapelketa izango dute pultsulariek.

Gizonezko bat atxilotu dute haurdun dagoen bere emaztea erasotzeagatik

Tolosa » Larunbat gauetan gertatu zen eraso eta 43 urteko gizonezkoa atxilotzea erabaki zuen Ertzaintzak.

ERREDAKZIOA

Larunbat gauetan gertatu zen eraso hainbat lagunek partekatzen duten Tolosako etxebizitza batean. Etxean bertan bizi den lagun batek eman zion abisua Ertzaintzari bertan gertatzen zenaren berri emanez.

Ertzaintza bikotearen etxera iristean, etxeko bainugelara topatu zuten bikotea eta haurdunaldiko azken hilabeteetan den emakumeak sudur inguruan jasandako erasoaren aztarnak zituen. Testigantzak jasota, Ertzaintzak gizonezkoa atxilotzea erabaki zuen.

Bizkarra eta artikulazioak zaintzeko hitzaldia Amarotzen

ERREDAKZIOA

Gaur 18:30etan hasita, Joseba Muñozek bizkarra eta artikulazioak zaintzeko hitzaldia emango du Amarotzeko Beti Gazte Jubilatuen Elkartearen Ordu eta erdiko iraupena izango du saioak eta bertan urteetan zehar bizkarrak eta artikulazioek jasan dituzten eraginei nola aurre egin adieraziko dute. Era simple eta arinean egingo da eta praktika eta bideo bat ere izango ditu lagun. Galderak egiteko aukera ere izango da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORTZETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_publi@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Arnezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Hitzaldia

■ **Tolosa.** Juantxo Agirre Mauleon historialariak *Amairko eta guda zibileko arkeologia. Zientzia memoria-ren zerbitzura* hitzaldia emango du Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroan 16:00etan.

Deialdia

■ **Villabona.** Santio festak prestatzeko bilera udaletxean 19:00etan.
■ **Villabona.** Udaleko Gazteria sailak, Gaztelekuia izango den Katea Etxea identifikatuko duen logotipoa sortzeko lehiaketa jarri du martxan 12-17 urte bitarteko eskualdeko gazteentzat. Sari bakarra emango da, eta norbanako lehiakidearentzat, mp4 ipod nanoa izango da. Taldeko lehiakideentzat berriz, balio bera izango duen taldeko jarduera bat izango da. Jarduera horren proposamena kartazal txikian sartu beharko dute. Lanak aurkezteko azken eguna berriz, hirlaren 20a izango da eta Kirol eta Gazte informazio bulegoan, Liburutegian edota Kiroldagian aurkez daitezke. Saria maiatzaren 4ean 17:00etan Villabonako udaletxeko Pleno aretoan emango da.

Aisialdia

■ **Tolosa.** Tolosa Kup txapelketan ariko diren taldeen multzoak osatzeko zozketa 18:00etan Kultur Etxean. Areto futboleko txapelketa hirlaren 17 eta 18ko asteburuan hasiko da.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Moraut R. Zabalarreta, 1.943 67 36 49.
■ **Betelu.** Carrillo A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Irurako Bittorrek Cacereseke Jerte bailara inguruan ateratako argazki hau bidali du XI. HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzeko. Bittor bera eta beste hiru lagun ageri dira, baina nor da nor?

Nor da nor?



IRURA

«Eguraldi ona zegoen edozein txokotan atera zitekeen argazki hau baina Jerte bailaran aterata dago gereziondoak loretan ikusi ondoren Los Cañosetik bueltan, Caceresen. Ikusgarria benetan. Argazkikoak Ane, Beñat, Idoia eta Bittor gara, baina nor da nor?», galdetzen du irurarrak. BITTOR AMONDARAIN

A Agurrak



Urte askoan!

Ekain Olano (Lizartza). Gaur urtebete. Zorionak eta muxuak familia guztiaren partetik.

agurrak

urtebetetzak - urrezko ezteiak ezkontzak - jaioberriak jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzan: Udaletxeko bulegoa

agurrak



bidali opor hauetako argazkiak!

NORA BIDALI?

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora edo HITZAren Tolosako edo Leitzako egoitzetara **Apirilaren 6tik 28ra**

1. Saria

2. Saria

3. Saria